

# MARTXAREN ARAUTEGIA

## 1.- DATA ETA LEKUA

Herri Ametsa Talaia Mendi Martxa **2022ko urtarrilaren 30ean**, goizeko **9:30ean**, hasiko da. Abiapuntua eta helmuga Herri Ametsa Ikastolan izanen dira.

## 2.- IBILBIDEA

Herri Ametsa Ikastolatik hasita, Ulian zehar izango da eta **9,3km**-ko luzera izango du. Nahi duenak 3,5Km-koa izango den ibilbide motzagoa egin dezake. Zenbait arduradunek parte hartzaileak ibilbidean zehar gidatuko dituzte. Hala ere, ibilbidea eta kilometroak behar bezala seinaleztatuta egongo dira, kartelen bidez.

**Hornidura postu bat atonduko da 5. kilometroan.** Postu horretan, parte hartzaileei edariak eskainiko zaizkie (musukoa jarrita izan beharko da nahi dena hartzeko) baina osasun aholkuei jarraituz, oraingoz, **ezingo dugu janaririk eman.**

Bestalde, **hondakin gutxiago sorrarazteko eta ingurumena zaintzeko helburuarekin hemendik aurrera ez dira plastikozko edalontziak egongo.** Beraz, **parte-hartzaile bakoitzak edalontzi berrerabilgarri bat (poltsikoan gorde daitekeena, adibidez) ekarri beharko du.**

## 3.- IZEN-EMATEA

**16 urtetik gorakoek eta haiek lagundutako adingabeek** esku hartu dezakete. Mendi martxan izena emateko epea **2021eko abenduaren 15etik 2022ko urtarrilaren 26a arte** (biak barne) izanen da eta izena [www.herrikrosa.eus](http://www.herrikrosa.eus) webgunean eman beharko da. Probaren egunean bertan ere izena eman daiteke, goizeko 8:15etatik 9:15ak arte, betiere **275 parte hartzailearen gehienezko kopurura iritsi ez bada.** Kopuru hori betetzen den momentuan itxaron zerrenda irekiko da [www.herrikrosa.eus](http://www.herrikrosa.eus) webgunean. Aurten, parte-hartzaile bakoitzak ordaindutako kopurutik euro bat **Bihotzez Elkarteari** emango zaio.

Hiru adin saila xedatu ditugunez, kontuan hartu bakoitzari dagokiona (**parte hartzaile guztiek eman beharko dute izena**):

- Batetik, **16 urtetik gorakoentzako** (**16 urtekoak barne**): 11€ ordaindu beharko dituzte.

- Bestetik, **8-15 urte bitartekoentzat**: 6€ ordaindu beharko dituzte.

- Azkenik, **8 urtetik beherakoentzako**: ez dute ezer ordaindu behar izango.

Izena ematean, gurasoek edo legezko tutoreek, haur parte-hartzailearen arduradun direnez, ziurtatuko dute haurrak ez duela mendi martxan esku hartzeko eragozpenik eta, horrenbestez, esku hartzeko baimena ematen diotela.

### **NOLA EGIN IZEN-EMATEA?**

Parte hartzaile guztiek [www.herrikrosa.eus](http://www.herrikrosa.eus) webgunean sartu behar dute eta, lehen aldia bada, hantxe erregistratu. Ondoren, mendi martxan izen emateko aukera izango dute.

**Nortasun Agiririk ez dutenek** (haurrek, alegia) erregistroko txantiloia bete behar dute eta "identifikazio kodea" jartzen duen lekuan ondorengo jarri:

- aurrena, haurraren izenaren lehen letra,
- jarraian, lehen deitura osorik eta,
- azkenik, jaiotza-data (hasieran, urtea, lau zenbakiez; gero, hila eta eguna, bina zenbakiz).

Ez da tarterik utzi behar: hots, 2014ko maiatzaren 30ean jaiotako Jon Mikel Gartzia Lasa parte-hartzaileari **jgartzia20140530** jarriko zaio. **Aurreko edizioetan erregistroa egin zuten adin txikikoek ez dute kode berririk sortu behar: aurreko edizioetako kode bera sartzeari nahikoa izango da.**

Erregistroko datu guztiak betetakoan, "**Ikastolako ikaslea edo haurra izanez gero**" deritzan gunean sartu eta aurretik adierazitako identifikazio kodea jarri ondoren, izena eman ahal izango dute.

Ordainketa egin duten pertsonen bakoitzaren izen-deiturak parte-hartzaileen zerrendan ageri direla ziurtatu beharko du, baita izenaren ondoan **tarjeta (bai)** ageri dela ere. Hala ez bada, antolakuntzarekin harremanetan jartzea beharrezkoa da.

**Azkenik, inork mendi martxan parte hartu ezin badu (lesioa, gaixotasuna... dela kausa) edo izen ematearekin arazorik badu,**

**antolakuntzari (Herri Ametsari) horrexen berri eman diezaioke martxa eguna baino astebete lehenago arte.**

#### **4.- OPARIAK ETA HAMAIKETAKOA**

**Parte hartzaile guztiei elastiko bat** emanen zaie **opari**: izena ematean, neurria zehazteko eskatuko da, baina azken egunetan izena eman ez gero, ez dugu bermatzen denentzako neurri egokiak geratuko direnik. Honetaz gain, aurten ere, **opari berezi bat** emango zaie.

Mendizaleentzako poltsak (dagokien kamiseta eta opariarekin) **Ikastolako portxean banatuko dira**: batetik, **2022ko urtarrilaren 27an eta 28an, arratsaldeko 15:00ak eta 19:00ak bitartean**, eta bestetik, **martxaren egunean, 8:15etatik 9:15ak arte**.

Mendi martxa bukatu ondoren, parte hartzaile guztien artean **hainbat opari zozkatuko** dira baina aurten, Covid-19a dela eta, ez da **hamaiketakoa** egingo.

#### **5.- INGURUMENA**

Mendi martxa inguru eta parke natural batetik igaroko da. Uliako zati bat Kontserbazio Bereziko Eremua da. Beraz, tokiok ahal bezainbeste zaintzeko, parte-hartzaile guztiei zaborra hornidura postuetatik gertu jarriko diren zakarrontzietara soilik bota dezaten eskatzen zaie. Bestalde, animaliak eta landareak errespetatzea nahiz ibilbidean zehar zeharbideak ez hartzea ezinbestekoa da.

Natura-ingurunearen errespetuarekin eta zaintzarekin lotuta parte-hartzaileentzako arauak eta betebeharrak:

- Ingurumena errespetatu. Ez kaltetu baliabide natural, geologiko, kulturalak...
- Antolakuntzak ezarritako eta markatutako ibilbidea errespetatu, bertatik irten gabe.
- Ez bota zaborrik (hondakinak, bilgarriak, janaria, materiala,...) antolakuntzak baimendutako lekuetan izan ezik.
- Beste parte-hartzaileen ingurumen-jokaera arduragabeak antolakuntzari jakinarazi.

## **6.- SEGURTASUNA**

**Udaltzain, boluntario eta Gurutze Gorrikoen** laguntzaz, antolatzaileek mendi martxa ondo ateratzea eta arazorik ez izatea bermatuko dute.

**Antolakuntzak eskubide osoa izango du proba beste ibilbide batetik desbideratzeko, beharrezkotzat jo litzakeen aldaketak egiteko eta, eguraldiak edota beste eragileren batek hartaratuta balego, mendi martxa bertan behera uzteko.**

## **7.-ERANTZUKIZUNA**

Herri Ametsa Talaia mendi martxan izena emanda dauden parte-hartzaile guztiek proban borondatez eta euren ardurapean parte hartzen dute. Norberak bere gain hartu beharko du kirol jarduerak dakarren arriskua.

**Bestalde, antolakuntzak Ardura Zibileko eta Istripuko aseguruak izango ditu parte-hartzaileentzat.** Hala ere, antolakuntza ez da inoiz, norberaren egoeragatik edo ekintzengatik sortutako ezbeharren, zuhurtziagabekeriaren, arduragabekeriaren, gaixotasunen, arazo fisikoen, arauak eta arautegia ez betetzearen edo proba egiten den lekura joan-etorrietan sortutako istripuen erantzule izango. Parte-hartzaileek, salbuetsi, uko egin eta libratu egiten dituzte erakunde antolatzailea, laguntzaileak, babesleak eta beste mendizaleak partaideekiko eta haien oinordeekiko izan ditzaketen erantzukizun zibileko arduetatik, eta onartzen dute antolakuntzaren, laguntzaileen, babesleen eta beste partaideen aurkako salaketarik ez dutela jarriko.

Halaber, parte-hartzaileek betekizun izanen dute istripuren bat izan duen edonor laguntzea eta antolakuntzaz arduratuko diren pertsoneri edozein ezbeharren berri ematea.

## **8.- COVID-19 PROTOKOLOA**

Herri Ametsa Talaia segurtasunez antola dezakegula sinesten dugu eta horregatik, egoera epidemiologikoaren arabera, lasterketa aurretik antolakuntzak neurri zehatzak hartuko ditu eta protokolo zehatz bat zehaztuko du. Pertsona guztiek bete beharko dituzte agintarien edo osasun-zerbitzuen jarraibideak, bai eta Osasun Sailarenak ere, indarrean dauden protokoloen arabera.

Gaur egungo neurrien arabera parte-hartzaile orok ondorengo segurtasun neurriak hartu beharko ditu:

- **Ikastolako eremuan, musukoa nahitaez erabili beharko da.**

Mendi martxa hasi arte, partaideek musukoa jantzita eraman beharko dute. Behin martxa hasita, musukoa kendu ahal izango da, baina ibilbidean zehar jende pilaketarik badago, berriro jantzi beharko da. Hornidura postuan, bakoitzak behar duena hartzeko derrigorrezkoa da.

- **1,5m-ko segurtasun-distantzia zaindu.**
- **Eskuak maiz garbitu.**
- **Covid-19arekin bateragarriak diren sintomak atzemanaz gero, antolakuntzako kideren batekin harremanetan jarri.**

Bestalde, segurtasun neurriak hobeto bermatzeko aurten ez da aldagelarik egongo, baina partaideek motxilak kontsignan utzi ahal izango dituzte.

Bestalde, segurtasun neurriak hobeto bermatzeko aurten ez da aldagelarik egongo, baina partaideek motxilak kontsignan utzi ahal izango dituzte.

## **9.- IRUDI ESKUBIDEAK**

Parte hartzaile bakoitzak ontzat ematen du antolatzaileek ateratako argazki edo bideoetan euren irudia libreki erabiltzeko eskubidea.

## **10.- DATUEN BABESA**

Parte-hartzaileek euren datu pertsonalak kirol helburuetarako erabiltzeko baimena ematen dute.

## **11.- ARAUDIAREN ONARPENA**

Lehiaketan parte hartze hutsak arauok onartzea dakar.

## **ARGIBIDEAK**

**☎:** 943 393 520

**emaila:** [kirolkomisioa@herriametsa.com](mailto:kirolkomisioa@herriametsa.com)

**Webgunea:** [kross.herriametsa.com](http://kross.herriametsa.com)

**Facebook:** [www.facebook.com/herriametsatalaia](http://www.facebook.com/herriametsatalaia)

# NORMATIVA DE LA MARCHA

## 1.- FECHA Y LUGAR

La prueba Herri Ametsa Talaia Mendi Martxa se celebrará el día **30 de enero de 2022**, a las **9:30**.

## 2.- RECORRIDO

Dará comienzo en la ikastola Herri Ametsa, recorrerá el monte Ulía y tendrá una longitud de **9,3 km**. Quien prefiera podrá realizar un recorrido más corto de 3,5Km. Algunas personas se ocuparán de guiar a los participantes y tanto el recorrido como los kilómetros estarán debidamente señalizados.

Habrá **un punto de avituallamiento en el kilómetro 5** provisto de diferentes bebidas, pero siguiendo las recomendaciones sanitarias, por ahora **no podemos ofrecer comida**.

Por otra parte, a partir de esta edición, **con el objetivo de generar menos residuos y proteger el medio ambiente no habrá vasos de plástico**. Por lo tanto, **cada participante debe traer un vaso reutilizable** (que se pueda guardar en el bolsillo, por ejemplo).

## 3.- INSCRIPCIÓN

Sólo podrán participar personas mayores de 16 años y los niños que les acompañen. El plazo de inscripción para la marcha del monte será del **15 de diciembre de 2021 hasta el 26 de enero de 2022** (ambas fechas inclusive) y únicamente se podrá realizar la inscripción a través de la página web [www.herrikrosa.eus](http://www.herrikrosa.eus). Asimismo, se puede formalizar la inscripción para la marcha de montaña el mismo día, desde las 8:15 hasta las 9:15, mientras no se haya sobrepasado el **máximo de 275 participantes**.

Este año se entregará un euro de lo que abone cada participante **a la Asociación Bihotzez**.

Tened en cuenta lo que corresponde a cada una de las tres modalidades que hemos establecido (**todos los participantes se deberán inscribir**):

- Por una parte, **los mayores de 16 años (ellos inclusive)** deberán abonar 11€.
- Por otra parte, **los participantes de entre 8 y 15 años** abonarán 6€.

- Por último, **los menores de 8 años** no deberán pagar nada.

A la hora de inscribir al participante, los padres o tutores legales, como responsables del menor, declararán que el participante no tiene ningún impedimento para participar en la marcha de montaña y que, en consecuencia, le dan su permiso para ello.

### **¿CÓMO REALIZAR LA INSCRIPCIÓN?**

Todos los participantes deben entrar en [www.herrickrosa.eus](http://www.herrickrosa.eus) y si es por primera vez, registrarse allí. Luego tendrán la oportunidad de apuntarse a la marcha de montaña.

**En el caso de carecer de DNI** (por ejemplo, los niños), deberán de rellenar el formulario para registrarse y en el apartado "código de identificación" deberán poner lo siguiente:

- en primer lugar, la letra inicial del nombre del niño o de la niña,
- a continuación, el primer apellido, entero,
- finalmente, la fecha de nacimiento (primero, el año, con sus cuatro cifras; a continuación, el mes y el día, cada uno con dos cifras).

No se dejará espacio entre cada indicación: por ejemplo, para una participante llamada Ana Mari Gartzia Lasa, nacida el 30 de mayo de 2014, se escribirá **agartzia20140530**. **Los menores inscritos en las pasadas ediciones no tendrán que crear un nuevo código: bastará con indicar el mismo código de las ediciones anteriores.**

Una vez rellenados todos los datos del registro, hay que entrar en el apartado "**Alumno/a de la ikastola o niño/a**" y, después de indicar el código de identificación antes mencionado, podrá realizar su inscripción.

Los participantes que hayan realizado el pago **deberán de comprobar** que su nombre y apellidos figuran **en la lista de inscritos** antes del día de la prueba, **con la mención Tarjeta (sí)** en el listado. De no ser así, tendrá que ponerse en contacto con la organización.

**Por último, cualquier participante que no pueda asistir a la marcha (debido a lesión, enfermedad...) o tenga algún problema con la inscripción, puede comunicarlo a la organización (Herri Ametsa) hasta una semana antes de la marcha.**

#### **4.- REGALOS Y REFRIGERIO**

**Se regalará una camiseta a todo participante:** se solicitará la talla deseada en el momento de la inscripción, pero no garantizamos que todas queden disponibles en caso de inscripciones tardías. A parte de esto, habrá un **regalo especial** para cada participante.

Las bolsas (con las respectivas camisetas y regalos) se repartirán en el porche de la Ikastola **el 27 y 28 de enero, de 15:00 a 19:00 de la tarde, así como el día de la marcha, de 8:15 a 9:15.**

Una vez finalizada la marcha de montaña se sortearán diferentes regalos entre todos los participantes pero debido a la Covid-19, en esta edición, **no se celebrará el *hamaiketako* popular.**

#### **5.- ENTORNO**

La marcha de montaña se desarrollará por zonas de monte y un parque natural. Una parte de Ulija es Zona Especial de Conservación. Por lo tanto, para cuidar debidamente el medio ambiente, se pide a los participantes que arrojen la basura únicamente en las bolsas de basura de las zonas de avituallamiento. Por otra parte, es fundamental tanto respetar la fauna y la flora como no tomar atajos en el recorrido.

Normas y obligaciones para los y las participantes, relacionadas con el respeto y cuidado del medio natural:

- Respetar el entorno. No dañar los recursos naturales, geológicos, culturales...
- Respetar el itinerario establecido y balizado por la organización, no saliéndose de éste.
- No tirar basura (desperdicios, envolturas, alimentos, material, ...) salvo en los lugares habilitados por la organización.
- Remitir a la organización cualquier conducta medioambiental negligente de otros participantes.



## **6.- SEGURIDAD**

La organización velará por que la prueba se desarrolle en orden y disciplina, contando para ello con la ayuda de la **Policía Municipal, voluntarios y Cruz Roja.**

**La organización podrá desviar o cambiar el recorrido de la marcha de montaña o suspenderla debido a las inclemencias meteorológicas o a otros factores que así lo obliguen.**

## **7. RESPONSABILIDAD**

Todos los participantes inscritos en la marcha de montaña Herri Ametsa Talaia entienden que participan voluntariamente y bajo su propia responsabilidad en la prueba. Cada participante asumirá el riesgo que implica la actividad deportiva.

Por otra parte, **la organización dispone de un seguro de responsabilidad civil y de accidentes para los participantes.** Sin embargo, nunca se hará responsable de los accidentes que se deriven de un padecimiento o tara latente, imprudencia, negligencia, inobservancia de las normas y del reglamento, así como los producidos en los desplazamientos al y desde el lugar en que se desarrolle la prueba. Los participantes exoneran, renuncian, eximen y convienen en no denunciar a la entidad organizadora, colaboradores, patrocinadores y otros participantes, de toda responsabilidad civil para con los participantes y sus herederos.

Será obligación de todo participante auxiliar al participante que requiera ayuda, así como avisar de los hechos a cualquier persona de la organización.

## **7. PROTOCOLO COVID-19**

Creemos que podemos organizar la marcha de montaña Herri Ametsa Talaia con seguridad y por ello, dependiendo de la situación epidemiológica, la organización tomará medidas específicas antes de la prueba y determinará un protocolo específico. Todas las personas deben cumplir con las instrucciones de las autoridades o servicios de salud, así como las del Departamento de Salud, de acuerdo con los protocolos vigentes.

Bajo las medidas actuales, todos los participantes deben tomar las siguientes medidas de seguridad:

- **En el área de la ikastola, será obligatorio el uso de la mascarilla.**  
Hasta el inicio de la marcha, los participantes deberán llevarla puesta. Una vez que haya comenzado la marcha de montaña, se podrá quitar, pero si hay aglomeraciones de gente a lo largo del recorrido, habrá que ponérsela de nuevo. Asimismo, es obligatorio ponérsela para coger algo en el puesto de avituallamiento.
- **Mantener una distancia de seguridad de 1,5 m.**
- **Lavarse las manos con frecuencia.**
- **Contactar con alguna persona de la organización en caso de tener síntomas compatibles con la Covid-19.**

Por otra parte, para garantizar mejor las medidas de seguridad este año no habrá vestuarios, pero los participantes podrán dejar sus mochilas en la consigna.

## **8.- DERECHOS DE IMAGEN**

Todo participante autoriza a la organización a utilizar y publicar libremente toda fotografía o vídeo grabado en el contexto de la carrera.

## **9.- PROTECCIÓN DE DATOS**

Los participantes dan su consentimiento para que la organización de la prueba trate, con finalidad deportiva, sus datos de carácter personal.

## **10.- APROBACIÓN DEL REGLAMENTO**

El mero el hecho de participar en la marcha significa la aceptación de este reglamento.

## **INFORMACIÓN**

**☎:** 943 393 520

**email:** [kirolkomisioa@herriametsa.com](mailto:kirolkomisioa@herriametsa.com)

**Web:** [kross.herriametsa.com](http://kross.herriametsa.com)

**Facebook:** [www.facebook.com/herriametsatalaia](http://www.facebook.com/herriametsatalaia)